Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Azpeitiko Udala

Ayuntamiento de Azpeitia

2013

AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK 5

I. SARRERA 7

II. IRITZIA 9

II.1 Udala eta Toki Erakunde Autonomoak 9
II.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia. 9
II.1.2 Urteko Kontuei buruzko iritzia 11
II.2 Azpeitia Lantzen, SA Sozietate Publikoa 13
II.2.1 Legea betetzeari buruzko iritzia. 13
II.2.2 Urteko kontuei buruzko iritzia 13

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK 14

III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea 14
III.2 Zerga sarrerak 14
III.3 Transferentziak eta diru-laguntzak 14
III.4 Ondarezkoa 15
III.5 Kontratazioa 15
III.6 Berankortasuna 17
III.7 Azpeitia Lantzen, SA Sozietate Publikoa 17

IV. FINANTZA ANALISIA 19

V. URTEKO KONTUAK 23

V.1 Udala 23
V.2 Toki Erakunde Autonomoak 26
V.3 Azpeitia Lantzen, SA Sozietate Publikoa 28

ALEGAZIOAK 31

ABREVIATURAS 49

I. INTRODUCCIÓN 51

II. OPINIÓN 53

II.1 Ayuntamiento y Organismos Autónomos Locales 53
II.1.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad 53
II.1.2 Opinión sobre las cuentas anuales 55
II.2 Sociedad Pública Azpeitia Lantzen, SA 57
II.2.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad 57
II.2.2 Opinión sobre las cuentas anuales 57

III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN 58

III.1 Presupuesto y contabilidad 58
III.2 Ingresos fiscales 58
III.3 Transferencias y subvenciones 58
III.4 Patrimonial 59
III.5 Contratación 59
III.6 Morosidad 61
III.7 Sociedad Pública Azpeitia Lantzen, SA 62

IV. ANÁLISIS FINANCIERO 63

V. CUENTAS ANUALES 67

V.1 Ayuntamiento 67
V.2 Organismos Autónomos Locales 70
V.3 Sociedad Pública Azpeitia Lantzen, SA 72

ANEXOS 75

A.1 Presupuesto y modificaciones presupuestarias 75
A.2 Impuestos, tasas y otros ingresos 77
A.3 Ingresos por transferencias y subvenciones 78
A.4 Gastos de personal 79
A.5 Compra de bienes corrientes y servicios 82
A.6 Transferencias y subvenciones concedidas 83
A.7 Inmovilizado y patrimonio en situaciones especiales 84
A.8 Pasivos financieros 86
A.9 Deudores presupuestarios 87
A.10 Operaciones extrapresupuestarias 87
A.11 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial 88
A.12 Análisis de contratación 89
A.13 Indicadores financieros y presupuestarios 91
A.14 Sociedad Pública Azpeitia Lantzen, SA 92

ALEGACIONES 97

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 26a
Vitoria-Gasteiz, 26 de marzo de 2015

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

1/2013 FA	1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
20/2012 ELD	20/2012 Errege Dekretu Legea, uztailaren 13koa, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasunaren sustapena bermatzeko neurriei buruzkoa
21/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga
BOE	Babes Ofizialeko Etxebizitzak
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
EIOZ	Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zerga
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia
GODG	Gastu Orokorretarako Diruzaintza-geldikina
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra
HEA	Hirigintzako Esku hartze Area
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
KES	Nazio eta Lurraldeko Kontuen Europako Sistema.
LUO	Lurraren Udal Ondarea
LZ	Lanpostuen Zerrenda
OHZ	Ondasun Higiezinen gaineko Zerga
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
TTEEOE	1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua.
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtsa

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Azpeitiko Udalaren 2013ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkotasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren, toki erakunde autonomoen eta udal sozietatearen aurrekontuaren egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua, oroitidazkia eta likidazioa. Azpeitia Lantzen, SA Sozietate Publikoaren kontuei dagokienez, gure lana kanpoko enpresa batek gauzatutako auditoretzako txostena aztertzea izan da eta horretarako, auditoreen lan paperetan euskarrituak egotea egiaztatu dugu eta beharrezko iritzitako proba osagarriak edo auditoriako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Azpeitiko udalerriak 14.509 biztanle ditu 2013ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera eta bere egituran, udalaz gain, honako hauek besarkatzen ditu:

- Euskara Patronatua Erakunde Autonomoa: toki erakundeko hizkuntza eta euskararen normalizazio zerbitzuak ematea du helburu, helduen alfabetatze eta euskalduntzea eta txostenak, aktak, ebazpenak, ediktuak, dekretuak eta oroharreko idatziak.
- Kirol Patronatua Erakunde Autonomoa: helburua heziketa fisikoa eta horren aribidea babestu, sustatu eta garatzea da; baita, udaleko kirol-aisialdiko instalakuntzak kudeatu eta administratzea.
- Azpeitia Lantzen, SA Sozietate Publikoa, % 100eko udalaren partaidetza duena; xede soziala ondasun higigarri eta higiezin oro erosi eta saltzea du, era guztietako eraikuntzak sustatu eta gauzatzea eta Azpeiti eta bertako biztanleen mesedetan jarduerak bideratzea.

Berebat, udalaz gaindiko ondoko administrazio publikoetako kide da: Gipuzkoako Uren Kontsortzioa (uraren ziklo osoaren kudeaketa); Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatea (hondakinak jaso, garraiatu eta tratatzea9 eta Haurreskolak Partzuergoa (haurtzaindegien kudeaketa).

Merkataritzako sozietateei dagokienez, Azpeitiko Udalak Iraurgi Lantzen, SAn % 50eko partaidetza du (turismoaren sustapena, negozio, ikerketa eta garapena, merkataritzakoak

eta esperimentalak, kultura eta heziketakoak) eta Urolako Industrialdea, SAn % 5,35eko partaidetza (Urolako eskualdean ekimena eta industri inbertsioaren sustapena).

Gainera, 2007ko urtean beste erakunde publiko eta merkataritzako sozietate pribatu batzuekin Ingurugiro Etxea Fundazioa sortu zuen, helburu nagusia ingurumen kultura berriko balio positiboetan sentikortzea dena. Azpeitiko Udalak sorrera ekitaldian eta izaera mugagabearekin Patronatuko ia kide gehienak izendatu zituen eta Fundazioaren estatutuetan jaso zen patroi kopurua handituko bazen, Azpeitiko Udalak izango zuela Patronatuko kideen gehiengoa izendatzeko eskubidea.

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 UDALA ETA TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA (ikus A.4)

1. Udalak eta Euskara Patronatuak 2013ko abenduaren 31n ez zuten gaurkotutako LZrik (azkena 2005eko otsailaren 3ko Udalbatzak onartu zuen), langile beharrizanak zehazteko balioko duena eta, beste hainbat alderdiren artean, aurrekontuan zuzkitutako lanpostu guztiak eta horiek betetzeko sistema egokia jasoko duena; LZ ez izateak EFPLren 13. Artikulua eta hurrengoak urratzen ditu. Horren ondorioz, 2013ko ekitaldian Udalaren LZn aurrekontuan zuzkitu gabeko 10 lanpostu daude eta bi erakundeen aurrekontu plantillan, hurrenez hurren, LZn jaso gabeko 18 eta 3 lanpostu daude.

KONTRATAZIOA (ikus A.12)

2. Bidegorria-2. faseko proiektuaren obra kontratua, udal igerilekuen eta kiroldegiaren arteko ibilbidea hartzen duena, Udalak 2012ko urriaren 22an esleitu zuen 241.830 euroren zenbatekoan. 2013ko otsailaren 27an kontratazio atalak kontratu aldaketa baten bitartez bide tarte berri bat esleitu zuen Enparango dorrearen eta kiroldegiaren artean, 151.075 euroren zenbatekoan. Kontratu aldaketa honek hasiera batean esleitutako zati bat ordezten du, GFAk biribilgune baten eraikuntza bertan behera utzi izanaren ondorioz ezin gauzatuzkoa zena, 62.215 eurorena. Zati berri honen esleipena ez daiteke kontratu aldaketa modura izapidetu, hasierako xedea zabaltzea baita (SPKLTBren 105.2 artikulua), administrazioko kontratazioan buru egiten duten publikotasun eta lehia printzipioak urratuz.

3. Garmendipe futbol zelaiaren eranskinaren zaharberritzea, zelai artifiziala jartzea barne, modu bereizian kontratatu ditu Udalak 2013ko uztailaren 29an eta urriaren 29an hurrenez hurren, publikotasunik gabeko 2 prozedura negoziatu bitartez 168.417 eta 136.137 euroren zenbatekoan, hurrenez hurren (6. eta 7. espedienteak), SPKLTBren 86. artikuluari jarraiki. Udalak ez ditu prozedura eta publikotasun arauak ezarri prestazioen metatutako balioa aintzat hartuta, aipatutako artikuluak agintzen duen moduan.

   Gainera, esleitutako kontratuen lehenengoa (6. espedientea) 245.763 euroren zenbatekoan kitatu da eta horrek % 46ko igoera egin du; horretarako, baina, ez du kontratazio atalak kontratuaren aldaketa ez izapidetu, ezta onartu ere, SPKLTBren 234. artikulua urratuz. Pleguetan aurreikusi gabe dagoen aldaketa horrek lizitazioaren eta esleipenaren oinarrizko baldintzak eraldatu ditu, SPKLTBren 107. artikulua urratuz.

4. Udalak eta Kirolaren Patronatuak 2013ko ekitaldian 570.489 eta 126.412 euroren gastua egikaritu dute, hurrenez hurren, zuzenean 5 zerbitzuren prestazioa esleituz; horrek administrazioko kontratazioan buru egiten duen publikotasun eta lehia printzipioa urratzen dute.

ONDAREZKOA (ikus A.7)

5. Foru Pasealekua oinezko igarobide bat eraikita berriz urbanizatzeko lanen proiektua egikaritzeko, Udalbatzak 2013ko ekainaren 4an areto bat 200.000 euroren zenbatekoan erostea onartu zuen; baita, 100.000 euroren balioa zuen ordain ekonomikoa ematea ere, azalera mugakide bat 20 urteko epean erabiltzeko baimenaren ordainetan; ez dago, ordea, ondasun eta eskubide horiek erosteko ordaindutako kopuruak justifikatuko dituen adituen aldez aurreko txostenik, TTEEOEren 11. artikulua urratuz.

Epaitegi honen iritzira, 1etik 5era bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, Azpeitiko Udalak eta Euskararen Patronatua eta Kirolaren Patronatua erakunde autonomoek zuzentasunez bete dute 2013ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. 2007ko ekainaren 12an, Auzitegi Gorenak Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak 2003ko maiatzaren 30ean ebatzitako epaia berretsi zuen, zeinaren indarrez Auzaraza HEAn eraikitako 2 eraikin legez kontrako izendatu zituen; baita, horien urbanizazioa eta eraikuntzak oinarri izan zituen administrazioko ekintzak ere, Udala hirigintzako legezkotasuna berrezartzera eta erantzukizunak ondorioztatzera behartuz. 2013ko irailaren 17ko udalbatzaren erabaki bitartez HAPO behin betiko onartu ondoren, Udalak Euskal Herriko Auzitegi Nagusiari epaia gerora sortutako galeragatik betearazteko intzidentea artxibatzeko eskatu dio; eskaerari 2014ko otsailaren 26ko auto bidez egin zaio uko.Udalak ez du 2013ko Kontu Orokorraren Oroitidazkian gertakari horren berri eman, ez eta horrek izan dezakeen ondorio ekonomikoaren balioespenaren berri ere.

2. Udalak ez du 2013ko Egoeraren Balantzean erregistratu kobratzeko duen zorra, 1,3 milioi eurorena, Etxebeltz-Izarra eremuko Banaketa Proiektuan zorpetutako hirigintzako aprobetxamenduari dagokiona, alkatetzaren dekretu bidez behin betiko 2007ko martxoaren 19an onartu zena. Aldeen artean izenpetutako hitzarmenak agintzen duen moduan, kopuru hori eremuko antolamenduaren hobekuntza modura kalifikatu diren hainbat obraren % 50 finantzatzeko baliatuko da, areako Kontzertazio Batzordeak egin beharrekoak, txosten hau idatzi dugun datan egikaritzeko daudenak. Gainera, adierazi behar da ez direla kopuru horrekin bermeak aurkeztu eta, izaera errealarekin, lursailen 7 urteko atxikimenduaren epemuga gainditu dela, uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuaren 20. artikuluan ezarritakoa, hirigintza izaerako ekintzak Jabetza Erregistroan izen emateari buruzko Hipoteka Legea egikaritzeko Erregelamenduan, hirigintzako aprobetxamendu hori jasotzen duten urbanizazio kostuak eta egikaritzeko dauden urbanizazio lanen ordainketa bermatzeko.

   Hirigintzako aprobetxamenduaren aurrekontuko erregistro ezak ez du 2013ko abenduaren 31ko Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinean ondoriorik, diru-sarrera horiek atxikita daudelako.

3. Udalak ez du 2013ko ekitaldiko ez Aurrekontuaren Likidazioan, ez Kontu Orokorraren Oroitidazkian ondoko gastu konpromisoen izateari buruzko berririk eman:

   - Gerorako eraikuntza eskubideak erosteko konpromisoa, babes ofizialeko etxebizitzatarako edo erregimen tasatuko etxebizitzetarako, bizitoki eremu berria eraikitzea ahalbideratuko duten planeamendu baliabideak izapidetzeari meneratua. Lursailaren jabe den hirugarrenarekin izenpetutako hitzarmenak, 2007ko apirilaren 16an onartutakoak, 10 urteko iraupena du; Udalak 2007-2009 aldian 510.860 euroren zenbatekoa ordaindu du, “Ibilgetu materialaren aurrerakinak” idazpuruan jaso dena eta Udalak ez du horren itzulketa babestuko duten bermerik exijitu. Txosten hau idatzi dugun datan, jabe pribatuek ez dute inongo hirigintzako izapiderik abiarazi.
   - Ikasberri Kooperatiba Elkartea Ikastolarena den ikastetxea dagoen eraikinean argindarra eta garbiketa gastuak finantzatzeko konpromisoa, 2008ko azaroaren 6ko Udalbatzak onartutako hitzarmenaren indarrez, 10 urteko indarraldiarekin, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Diru-laguntza hau izenez ekitaldi

bakoitzeko aurrekontu orokorretan dago jasoa, 2013ko ekitaldian kontzeptu horrekin egikaritutako gastua 138.783 eurorena izan delarik.

Epaitegi honen iritzira, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Azpeitiko Udalaren eta Euskara Patronatua eta Kirol Patronatua Erakunde Autonomoen Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2013ko ekitaldiaren aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten dute, ondarearen eta 2013ko abenduaren 31n finantza egoeraren isla zuzena eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.

II.2 AZPEITIA LANTZEN, SA SOZIETATE PUBLIKOA

II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen ustetan, Azpeitia Lantzen, Sozietate Publikoak zuzentasunez bete du 2013ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Sozietate Publikoak 2013ko abenduaren 31ko Egoeraren Balantzeko "Izakinak" idazpuruan hainbat aretoren erosketa kostua du kontabilizatua, 324.687 euroren zenbatekoan, eta horien gainean, narriaduragatik 162.344 euroren zuzkidura hornitu du. Areto horiek, data horretan, Azpeitiko Udalari utziak dizkio zerbitzu publikoaren kudeaketarako. Ondasun hauen gaineko tasaziorik ez dagoenez gero, ezin zehatz daiteke idazpuru horretan kontularitzako zein baliorekin egon behar luketen erregistratuak.

Epaitegi honen iritzira, 1. paragrafoan adierazitako salbuespena alde batera, Azpeitia Lantzen Sozietate Publikoaren 2013ko ekitaldiaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2013ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2013ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak hasiera batean 2013ko martxoaren 21eko Udalbatzak onetsi zituen; ordea, 21/2003 FAren 15.2 artikuluak behin betiko onespena dagokion ekitaldiaz aurreko urteko abenduaren 31 baino lehenago egitea aurreikusten du.
- Kirol Patronatuak “Ondare sarrerak” kapituluan 16.999 euroren zenbatekoa kontuetaratu du, kirol jardueren prezio publikoen diru-bilketaren gaineko % 10eko kanonari dagokiona, kirol instalakuntzen kudeaketa kontratutik eratorritakoa. 2013ko ekitaldian prezio publikoen kontzeptuan jasotako kopuruak, 169.994 eurorenak, eta enpresa esleipendunari egindako ordainketak (diru-bilketa horren gaineko % 90a), aurrekontuz kanpoko kontuetan erregistratu dira. Gomendagarria litzateke kontratu hori eragiten duten eragiketa ekonomiko guztiak aurrekontuan erregistratzea.

III.2 ZERGA SARRERAK

- Udalak ez du zergen ordenantza orokorrik. Gomendagarria litzateke hori izapidetzea eta besteak beste, 12 hilabetez beheitiko aldietarako berandutza interesen ordainketa salbuetsita zerga zorren zatikapen eta gerorapenen emakida arautzea, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituena.

III.3 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

- Udalak 2013ko ekitaldian Azpeitiko Musika Bandari 57.680 euro ordaindu dizkio bere jarduera finantzatzeko helburuarekin, nagusiki udalerrian egiten dituen ekitaldietara eman; "Ondasun erosketa eta zerbitzuak” kapituluan kontuetaratu du. Egokiagoa litzateke gastu hauek elkartearen jarduera finantzatzera emandako diru-laguntza nominatibo modura izapidetzea, dagokion hitzarmena gauzatuz.
- Tokiko Gobernu Batzarrak 2 auzo elkarteri zuzenean 161.167 euroren diru-laguntzak eman zizkien guztira, zortasun publikoari lotutako lursail pribatuetan egiten diren urbanizazio lanen % 30 finantzatzeko jokamolde ohikoa oinarri hartuta; 2013ko ekitaldian 104.022 euroren gastua egikaritu da. Gomendagarria litzateke ezaugarri hauek dituzten lanentzako laguntza ekonomikoen udal ordenantza bat onartzea, publikotasun egokia izango duela bermatuz, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eskagarriak diren alderdi guztiak arautuko dituena, besteak beste, onuradunei

hornitzaile ezberdinen gutxienez 3 eskaintza aurkezteko duten obligazioa betetzeko eskatuz.

III.4 ONDAREZKOA

- Udalak 2013ko ekitaldian hitzarmena izenpetu du hirugarren pribatu batekin 20 urteko aldian zehar azalera baten erabilera eskubidea izateko, ordain ekonomiko modura 100.000 euroren zenbatekoa ordainduz. Udalaren aldeko erabilera eskubide erreal hau ez da Jabetza Erregistroan jaso (ikus A.7).

III.5 KONTRATAZIOA

Udalak eta Kirolaren Patronatuak ez dituzte 2013ko abenduaren 31n dagozkion aginpideak ebatzi kontrataturiko kanpo zerbitzuak zuzen egikaritzeko, Administrazio Publikoaren eta kontrataturiko enpresako langileen arteko harremana argi utziko dutenak, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legearen Xedapen Gehigarri 1.ak agintzen duen moduan.

Fiskalizazio-gai izan den urtean Udalean eta Kiroletako Udal Patronatuan indarrean zeuden 12 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.12):

Publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetutako obra kontratuak

Prozedura hau baliatuta izapidetu diren aztertutako 7 obra kontratuetan, 1,4 milioi euroren zenbatekoan esleitu direnetan, zera ikusi dugu:

- Plegu guztiek jasotzen dituzte eskaintza onuragarriena zehazteko irizpideak eta negoziazio-gai izan daitezkeela esaten. Nolanahi ere, plegu horiek ez dute prozedura eta gerora negoziazio horretan baliatuko diren arauak arautzen, SPKLTBren 176. artikuluak agintzen duen moduan, ez eta esleipen irizpide bakoitzaren haztapena, zeina gerora zehazten duen eskaintzen balorazio txostena egiten duen udal teknikariak. Ezaugarri hauek guztiak pleguetan jasotzea gomendatzen da, enpresa parte-hartzaileek aldez aurretik jakin ditzaten eta eskaintzarik onurazkoena erabakitzean gardentasun gorena bermatzearren.
- Kontratu hauetatik 6tan (1, 2, 3, 4, 5 eta 6 espedienteak), esleipen irizpideen artean hobekuntzak izeneko irizpidea jasotzen da eta horiek ez daude zehaztuta SPKLTBren 147.2 artikuluak agintzen duenaren aurka.

  Kontratu hauetarik 4tan (1, 2, 4 eta 5 espedienteak), eskainitako hobekuntzetarik batzuk, 103.855 eurorenak, esleitutakoez besteko obretan aplikatu dira edo aplikatzeko daude, SPKLTBren 150. artikuluan aurreikusitakoa urratuz, zeinak agintzen baitu proposamenak balioztatzeko irizpideak zuzenean lotuko zaizkiola kontratuaren xedeari. Aribide honek zaildu egiten du artekaritza egitekoaren -zeinari meneratzen zaizkion ekintza horiek- ekonomia-finantza kontrola, 21/2003 FAren 67. artikuluak jasotzen duen moduan.

Espedientea

- Udal hilerriak kudeatzeko zerbitzu kontratuan, 133.999 euroan esleitutakoan, pleguetan aurreikusitako luzapenen iraupenak gainditu egiten du kontratuaren hasierako epea, SPKLren 279.1 artikuluan aurreikusitakoaren aurka.
- 3 kontratutan (2 Udalak esleitutakoak eta bat, Kirol Patronatuak) bat 179.800 euroan esleitu da eta 2 aleko prezioetan eta 2013ko ekitaldian 1,3 milioi euroren egikaritza izan dute; horietan prezio eta/edo epe irizpiderako jasotako formulek, nahiz objektiboak eta linealak izan, gutxieneko puntuazioa ematen diete lizitazioa berdintzen duten eskaintzei. Gomendagarria litzateke hasiera batean irizpide horietarako aurreikusitako haztapenak lortzea bideratuko duten formulak baliatzea (9. 10. eta 12. espedienteak).

Esleipena

- HAPOa idazteko kontratuan, 179.800 euroan esleitutakoan, esleitua suertatu zen eskaintza lizitazio prozesuan pertsona fisikoen talde batek aurkeztu zuen, gerora Enpresen Aldi bateko Batura osatu ez zuena, SPKLren 48. artikuluan ezarritakoari jarraiki (9. espedientea).
- 3 zerbitzu kontratutan, pleguetan eskatutako eta gordailatutako behin betiko bermea, guztira 61.081 eurorena, urteko baterako balioetsitako zenbatekoaren gainean % 5ekoaren parekoa da eta ez da kontratuko urte guztien gainean kalkulatu (2 urte), SPKLren 83. artikuluak edo SPKLTBren 95. artikuluak agintzen duen moduan (8, 10 eta 11 espedienteak).

Egikaritza eta harrera

- 2 obra kontratutan, 388.701 euroan esleitutakoetan, atzerapenak izan dira egikaritzan eta kontratazio atalak ez du epea luzatzea onartu, SPKLTBren 213. artikuluak agintzen duen moduan (4 eta 6 espedienteak).
- Udal hilerriak kudeatzeko kontratuan, 133.999 euroan esleitutakoan, kontratazio atalak luzapen guztiak atzerapenez onartu ditu (8. espedientea).
- 3 zerbitzu kontratutan, horietatik bi 313.799 euroan esleitutakoak eta bat aleko prezioetan, 2013an 864.970 euroren egikaritza izan dutenetan, kontratazio atalak onartutako kontratu aldaketak ez dira administrazioko kontratu bidez gauzatu, SPKLren 202. artikuluak jasotzen duen moduan (8, 9 eta 10. espedienteak).

Gainera, Udalaren ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketen 2013ko gastuaren egikaritza berrikustean honako alderdi hauek azaleratu dira:

- 2013an publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bitartez esleitutako ondoko espedienteetan, 3 hirugarreni luzatu zaie gonbidapena, guztietan enpresa bakarrak aurkeztu duelarik eskaintza. Eskabideak eskatzen jarraitzea beharrezkoa ez bada ere, kudeaketa hobea egiteko gomendagarria da ahalik eta eskaintza kopuru handiena lortzen saiatzea, SPKLTBren 178.1 artikuluak eskatzen duen lehia bermatzearren.

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	ESLEIPENA	EGIKARITZA
Geriatria eta etxez etxeko laguntzarako prestakuntza ikastaroa	58	58
Geriatria, etxez etxeko laguntza eta elikagaiak manipulatzeko prestak. Ikast.....	32	-
Arrisku egoeran dauden familientzako esku-hartze psikosozialerako zerb.	54	44
Ikastetxeetako heziketa sistema (2 urte).....	48	21
GUZTIRA	**192**	**123**

- Udalak zuzenean kontratatu du ondoko gastu errepikarien egikaritza azken ekitaldietan. Gomendagarria litzateke, gainera, kontrataziorako denbora aukerak aztertzea:

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	EGIKARITZA
Udal ibilgailuetako erregaiaren hornidura.....	71
Udaleko posta postontzietan banatzea.....	44
GUZTIRA	**115**

III.6 BERANKORTASUNA

- Udal artekaritzak ez ditu merkataritzako eragiketen ordainketarako aurreikusitako epeak bete izanari buruzko hiruhileko txostenak mamitu 2013ko ekitaldian, BFAri igorri behar zaizkionak; halaxe agintzen du merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako borrokan neurriak ezartzen dituen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4.3 artikuluak; lege honek abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten du.

  Aztertutako kontratazio espedienteetan 461.025 euroren ordainketak egin direla ikusi da (aztertutako guztiaren gainean % 20 egiten duten 14 ordainagiri); ordainketa horiek ezarritako epea batez beste 23 egunetan gainditzen dute.

- Azpeitia Lantzen SAri dagokionez, 2013ko ekitaldiko Urteko Kontuen Oroitidazkian jakinarazten den legez, ekitaldi horretan egindako ordainketa guztiek % 100 betetzen dituzte legezko epeak.

III.7 AZPEITIA LANTZEN, SA SOZIETATE PUBLIKOA

- Sozietate Publikoak 2013ko abenduaren 31ko Egoeraren Balantzeko "Pasibo ez arruntean" milioi 1 euroren zenbatekoa erregistratu du Azpeitiko udalak 1997-2003 aldian emandako maileguen kontzeptuan; alabaina, ezinezkoa da idazpuru honetan zuzen sailkatu den zehaztea, izan ere udalbatzak emakidaren gaineko erabakietan ez zituen zehaztu berariazko mugaegun epeak; honenbestez, itzultzeko dauden kopuruen eskagarritasunean denborazkotasuna zehaztugabea da.

- Sozietate Publikoaren plantilla 2013ko abenduaren 31n 3 langilek osatzen dute. Horietako bitan, 2003 eta 2009ko ekitaldietan, Administrazio Kontseiluak aurreko iraupen mugatuko kontratuak kontratu mugagabe bihurtzea erabaki zuen. Beste kontratuari dagokionez, berriz, 1995eko ekitaldian gauzatutako obra edo zerbitzu

jakinerako obra kontratuari eusten zaio. Gainera, Sozietate Publikoaren egungo jarduera aintzat hartuta, beharrezkoa den langile zuzkidura aztertu behar da.

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2011(*)	2012(*)	2013	2011	2012	2013
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.)	9.195	7.890	7.631	641	544	526
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.)	7.998	8.536	8.556	557	588	590
Ondare sarrerak (5. kap.)	259	882	288	18	61	20
A. Diru-sarrera arruntak	**17.452**	**17.308**	**16.475**	**1.216**	**1.193**	**1.136**
Langile gastuak (1. kap.)	5.161	4.448	4.911	360	307	339
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak (2. kap.)	6.597	5.370	5.357	460	370	369
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.)	2.187	2.015	2.342	152	139	161
B. Funtzionamendu gastuak	**13.945**	**11.833**	**12.610**	**972**	**816**	**869**
Aurrezki gordina (A-B)	**3.507**	**5.475**	**3.865**	**244**	**377**	**267**
- Finantza gastuak (3. kap.)	238	204	22	17	14	2
Emaitza arrunta	**3.269**	**5.271**	**3.843**	**227**	**363**	**265**
- Maileguen amortizazioa (9. kap.)	1.441	2.092	789	100	144	54
Aurrezki garbia	**1.828**	**3.179**	**3.054**	**127**	**219**	**211**
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.)	83	-	-	6	-	-
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.)	1.991	612	630	139	42	43
- Inbertsio errealak (6. kap.)	5.688	2.125	2.767	396	146	191
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.)	299	137	104	21	9	7
Kapitaleko eragiketen emaitza	**(3.913)**	**(1.650)**	**(2.241)**	**(272)**	**(113)**	**(155)**
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.)	**(644)**	**3.621**	**1.602**	**(45)**	**250**	**110**
Diruzaintzako geldikina	**5.971**	**7.450**	**8.130**	**416**	**514**	**560**
Zorpetzea 12/31n	**7.073**	**6.284**	**5.495**	**493**	**433**	**379**

(*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: % 6 egin dute behera aztertutako aldian; azpimarragarria da 2013ko ekitaldian izan duten % 5eko beheraldia. Bariazio nagusiak honako hauen ondorioz sortu dira:

- 2012ko martxoaren 30ean Udalak eta Gipuzkoako Uren Kontsortzioak hitzarmen bat izenpetu dute eta horren indarrez Kontsortzioak uraren ziklo osoa bere gain hartu du, Udalak uraren eta estolderiaren tasak biltzeari utziz, eta honenbestez, baita diru-sarrera horiek aitortzeari ere. Berebat, hitzarmen horretan Kontsortzioak 10 urtetan udal sareen lagapen kontzeptuan 639.866 euroren zenbatekoa ordaintzeko obligazioa ezarri da; ordainketa 2012ko ekitaldian egin zuen eta diru-sarrera hori "Ondare sarrerak" kapituluan kontabilizatu zuen. Eragin ekonomiko hau kentzen badugu ikusiko dugu diru-sarrera arruntek % 4 egin dutela gora aztertutako aldian, 2013ko ekitaldiko igoera azpimarragarria izanik.

- Aztergai izan dugun aldian, OHZ kontzeptuan aitortutako diru-sarrerek % 12 egin dute gora (% 8, 2013ko ekitaldian), batik bat tipo zergagarriak gaurkotu direlako (% 3 eta % 2,7ko igoera 2012 eta 2013ko ekitaldietan, hurrenez hurren) eta 2013ko ekitaldian bizilekuko OHZren kuotaren gainean % 50eko gainkargu berri bat ezarri delako, ohiko etxebizitza direla egiaztatzen ez duten etxebizitza haien gainean. Gainkarguak zergaren erroldan 96.327 euroren likidazioa eragin du.
- Energia hornitzen duten enpresei lurra, hegala eta lur azpia okupatzeagatiko tasa kontzeptuan kitatutako diru-sarrerek % 52 egin dute behera, udalerriko enpresa handien industri jarduerak behera egin duelako, nagusiki.
- "Transferentzia eta diru-laguntza arruntak" kapituluak % 7 egin du gora aztertutako aldian, batik bat UFFFtik eratorritako itunpeko zergen kontzeptuan aitortutako sarrerek izan duten bilakaeraren ondorioz (% 1eko igoera 2013an eta % 7koa 2012an).

Funtzionamendu gastuak: % 8ko igoera izan dute 2013an aurreko ekitaldiarekiko. Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluen arabera:

- **Langile gastuak:** Azpimarratzekoa da aurrekontuko kapitulu honek 2013ko ekitaldian aurrekoarekiko % 10eko igoera izan duela. Esan behar da 2012ko ekitaldian ez zela abenduko aparteko ordainsaria ordaindu, 219.660 eurorena, 20/2012 LED betez eta gainera, 2013ko ekitaldian kopuru bereko funtsa kontabilizatu dela, Udalbatzak 2013ko urriaren 16an onartutakoa, pentsio planetarako edo erretiroaren kontingentzia barne hartzen duten aseguru kolektiboko kontratuetarako ekarpenak egiteko baliatuko dena (ikus A.4). Bi ekitaldiak homogeneotasun terminoetan alderatzen baditugu, 2013ko gastua % 1 igo da aurreko ekitaldiarekiko.
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa:** Aurrekontuko kapitulu honetan gastua % 19 murriztu da aztertutako aldian. Gipuzkoako Uren Kontsortzioarekin izenpetutako hitzarmenak eragindako ondorio ekonomikoa kentzen badugu, aurrekontuko kapitulu honek aztertutako aldian % 8 egin du behera.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Aurrekontuko kapitulu honetan azpimarratzekoa da 2013ko ekitaldian izan duen % 16ko igoera, ekitaldian laguntza ekonomikoen 2 lerro berri eman izanak justifikatzen duena: Gizarte bazterkeria eta/edo behar larriko egoerak arintzeko gizarte larrialdiko laguntzen ordezko laguntzak eta osagarriak, 150.000 euroren aurrekontuko zuzkidurarekin, oso-osorik egikaritu dena; eta udalerrian enplegua, berrikuntza, dibertsifikazioa eta ekimena sustatzeko laguntza ekonomikoak, ekitaldian 183.544 euroren egikaritza izan duena, hasiera batean aurrekontu egindako 350.000 euroren zuzkiduratik.

Aurrezki gordina eta aurrezki garbia: Bi magnitudeak positiboak izan dira aztertutako aldiko 3 ekitaldietan; 2013ko ekitaldian sarrera arrunten gainean, hurrenez hurren, % 23 eta % 19 egin dutela. Finantza zamaren geroko proiekzioa 2013ko ekitaldikoaren pareko izanik, Udalak behar hainbateko gaitasuna du ekitaldi bakoitzean sortutako baliabideekin azken bi

ekitaldietakoen pareko inbertsio maila finantzatzeko, zorpetu beharrik izan gabe, ez eta Diruzaintza Geldikina murriztu ere.

Zorpetzea: Azpimarratzekoa da "Finantza pasiboak" kapituluan gastuak izan duen bariazioa, 2009ko ekitaldiko UFFFaren likidazio negatiboa kontabilizatu izanaren ondorioz; horren itzulketa 3 ordainketetan geroratu zen 2011-2013 bitarteko ekitaldi bakoitzean, 651.319 euroren zenbatekoan: 2011ko ekitaldian lehenengo epearen itzulketa kontabilizatu zen eta 2012ko ekitaldian, gainerako zenbatekoa kontabilizatu zen, 1,3 milioi euro.

Epe horretako finantza zamak, aurreko paragrafoan azaldutako eragin ekonomikoa kenduta, % 21 egin du behera; aipagarria da 2013ko ekitaldiak izan duen beheraldia, nagusiki, 2007ko abenduan kontrataturiko azken maileguaren baldintzen ondorioz.

Zorpetze mailari dagokionez, esan behar da Udalak zorpetutako zorrak % 22 egin duela behera aztertutako aldian, izan ere, ez du mailegurik kontratatu 2007ko ekitaldiaz geroztik. Zorpetzeak 2013ko abenduaren 31n ekitaldi horretan kitatutako sarrera arrunten % 33 egiten du.

Azpeitia Lantzen, Sari dagokionez, 2013ko abenduaren 31n 1,3 milioi euroren finantza zorra du, hipoteka bermepean zegoen mailegu batetik eratorritakoa; horri gehitu behar zaio Azpeitiko Udalaren aldeko zor itzulgarria, milioi bat eurorena.

Kapital eragiketen emaitza: 2012 eta 2013ko ekitaldietako saldo negatiboa dagokion aurrezki garbi bidez finantzatu da. Azken ekitaldi hauetako inbertsioek 2011ko ekitaldiarekiko % 50etik gorako murrizketa izan dute.

Eragiketa ez finantzarioen emaitza: 2012 eta 2013ko ekitaldietan eskuratutako superabita gailentzen da, bi ekitaldietan inbertsio mailak behera egin izanaren ondorioz.

Diruzaintza geldikina: Magnitude hau % 36 hazi da aztertutako aldian.

Ondorioa: Azpeitiko Udalak 2012 eta 2013ko ekitaldietan inbertsioak finantzatu ditu ekitaldi bakoitzean sortutako aurrezki gordinarekin, zorpetze maila jaisteaz eta Diruzaintza Geldikin saldoa gehitzeaz batera.

Aurrekontuaren egonkortasuna: 1/2013 Foru Arauan ezarritakoari jarraiki, Udalaren artekaritzak txostena egin zuen aurrekontuaren egonkortasun printzipioa, zor publikoa eta gastuaren araua betetzen zela adieraziaz. Udalaren eta erakunde autonomoen 2013ko ekitaldiko Aurrekontu Likidazio kontsolidatuari buruzko txostenean KESeko arauen arabera, honakoa egiaztatu dugu:

- Aurrekontuaren egonkortasun helburua bete dela, ekitaldian 1,6 milioi euroren superabit kontsolidatua eskuratu baita.

- Zor publikoaren helburua bete dela, kontsolidatutako diru-sarrera arrunten gaineko indarreko zorra % 27koa baita, gehienezkotzat ezarritako % 95 baino txikiagoa.
- Gastuaren araua ez da bete, 2013 eta 2012ko ekitaldietako aurrekontuko likidazioen artean zenbagarria den gastu-bariazioa % 7,72koa izan baita, mugatzat jotako % 1,7 baino altuagoa. 2013ko otsailaren 19ko Diputatuen Kontseiluak onartutako toki erakundeentzako Izapideari jarraiki, gastuaren araua diruzaintza geldikina erabiltzeagatik urratu denez gero, 1/2013 FAn aurreikusitako ekonomia-finantza plana ordeztu da Udalbatzari Artekaritza txostena jakinaraztearekin, egoera horren berri emanez.

Azpeitia Lantzen, SA sailkatua izateko zain dago sektore publikoko erakundeen ondasun-zerrendan. Alabaina, 2012 eta 2013ko ekitaldietako Galera-Irabazien Kontua aztertzetik ondorioztatu da diru-sarreren % 50 baino gehiago merkataritzako jarduerari dagozkiola. Artekaritzak 2013ko ekitaldirako jaulkitako txostenean adierazi den legez, Sozietate Publikoa oreka finantzarioko egoeran dago.

Beste erakunde batzuei dagokienez, zeinetan Udala partaide den, Iraurgi Lantzen, SA eta Ingurugiro Etxea Fundazioa, esan behar da sektore publikoko enteen zerrendan jaso gabe daudela eta Udalak ez duela GFAren Ogasun eta Finantza Sailera informaziorik bidali, behin-behineko sailkapena egin dezan. Nolanahi ere, 2013ko ekitaldiko Urteko Kontuek emaitza positiboak izan dituzte ekitaldian eta ez dute zorpetzerik; honenbestez, balizko kontsolidazioak ez luke egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuetan eragingo.

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2013-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA Euroak milakotan

		AURREKONTUA			ESKUBIDE.		KOBR.	%
SARRERA	ERANSK.	HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.
1. Zerga zuzenak	A.2	4.860	12	4.872	5.317	4.984	333	109
2. Zeharkako zergak	A.2	150	-	150	80	34	46	54
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.2	2.191	-	2.191	2.234	1.798	436	102
4. Transferentzia arruntak	A.3	8.447	-	8.447	8.556	8.382	174	101
5. Ondare sarrerak		174	-	174	288	284	4	165
7. Kapital transferentziak	A.3	464	73	537	630	393	237	117
8. Finantza aktiboak		18	2.898	2.916	371	363	8	(*) 98
SARRERAK GUZTIRA		**16.304**	**2.983**	**19.287**	**17.476**	**16.238**	**1.238**	**(*) 104**

(*) Exekuzioaren % kalkulatzerakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

		AURREKONTUA			OBLIG.		ORDAIN.	%
GASTUAK	ERANSK.	HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.
1. Langileria-gastuak	A.4	5.066	35	5.101	4.911	4.884	27	96
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. erosketak.	A.5	5.795	83	5.878	5.357	4.457	900	91
3. Finantza gastuak	A.8	73	-	73	22	22	-	31
4. Transferentzia arruntak	A.6	2.765	13	2.778	2.342	1.678	664	84
6. Inbertsio errealak	A.7	1.731	2.391	4.122	2.767	2.195	572	67
7. Kapital transferentziak	A.6	67	100	167	104	70	34	62
8. Finantza aktiboak		18	361	379	372	372	-	98
9. Finantza pasiboak	A.8	789	-	789	789	789	-	100
GASTUAK GUZTIRA		**16.304**	**2.983**	**19.287**	**16.664**	**14.467**	**2.197**	**86**
SARRERAK - GASTUAK					**812**			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA Euroak milakotan

	ERANSK.	ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Zordunak	A.9	1.545	(53)	736	756
Hartzekodunak		1.764	1	1.758	5
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			**(52)**		

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak	17.476
Aitortutako obligazioak	(16.664)
AURREKONTU ARRUNTEKO ERAGIKETEN EMAITZA	**812**
AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA	**(52)**
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	**760**
Finantzaketa desbideratzeak	40
Diruzaintza gaindikinarekin finantzatutako gastuak	1.400
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	**2.200**

DIRUZAINTZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikina (13/1/1)	7.450
Aurrekontuaren emaitza	760
Kaudimengab. zuzkiduraren hornid. bariazioa	(80)
DIRUZAINTZA GELDIKINA 2013.12.31-N	**8.130**
Diruzaintza	3.396
Aurrekontuko zordunak	1.994
Aurrekontuz kanpoko zordunak (A.10)	6.516
Aurrekontuzko hartzekodunak	(2.202)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak (A.10)	(708)
Sarreren aurrekontuaren hartzekodunak	(1)
Kaudimen-gabez. zuzkidura	(865)
DIRUZAINTZA GELDIKINA 13.12.31-N	**8.130**
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina	(100)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINTZA GELDIKINA 13.12.31-N	**8.030**

ZORPETZEA 2013/12/31-N (A.8)	**5.495**

Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2012 ETA 2013-KO ABENDUAREN 31-N — Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	13/12/31	12/12/31	PASIBOA	ERANSKINA	13/12/31	12/12/31
IBILGETUA	**A.7**	**49.178**	**50.148**	**FUNTS PROPIOAK**		**51.814**	**51.315**
Erab. Orok. emandako ibilg.....		309	777	Ondarea.....		19.731	19.731
Ibilgetu ez-materiala		155	130	Atxikitako ondarea.....	A.7	(7.573)	(7.573)
Ibilgetu materiala		45.240	45.765	Lagatako ondarea	A.7	(136)	(136)
LUO		477	479	Erabilera orokor. emand. Ondarea.....	A.7	(35.927)	(33.912)
Ibilgetu finantzarioa		2.997	2.997	Aurreko ekitaldietako emaitzak		73.205	69.277
				Galera-irabaziak		2.514	3.928
ZORDUNAK		**1.145**	**776**	**HARTZEKODUNAK EPE LUZERA**		**4.760**	**5.547**
Aurrekontuzkoak	A.9	1.994	1.545	Zorrak e/luz.	A.8	4.705	5.494
Askotariko zordunak.....	A.10	16	16	Bermeak eta gordailuak e/luz	A.10	55	53
-Kaudimengabez. Zuzkid.....	A.9	(865)	(785)				
				HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA		**3.645**	**3.761**
				Aurrekontuzko hartzekodunak		2.202	1.764
				BEZarengatiko hartzekodunak.....	A.10	1	-
FINANTZA-KONTUAK		**9.896**	**9.699**	Bestel. Hartzek. Ez aurrekontuzkoak..	A.10	110	930
Finantza inbertsioak e/lab.....	A.10	6.500	7.000	Erakunde Publiko hartzekodunak	A.10	300	244
Diruzaintza		3.396	2.699	Zorrak epe lab.	A.8	790	790
				Bermeak eta gordailuak e/lab.	A.10	231	11
				Aplikatzeko dauden sarrerak	A.10	11	22
AKTIBOA		**60.219**	**60.623**	**PASIBOA**		**60.219**	**60.623**

2012 ETA 2013-KO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK — Euroak milakotan

GASTUAK	2013	2012	SARRERAK	2013	2012
Langileria-gastuak.....	4.952	4.491	Negozio zifr. Zenbateko garbia.....	1.248	1.781
Kanpoko zerbitzuak	5.454	5.327	Zerga zuzenak.....	5.316	4.806
Emand. Transf. Eta dirulag.	2.446	2.152	Zeharkako zergak.....	80	141
Amortizaziorako zuzkidura.....	1.583	1.640	Jasotako transf. Eta dirul.	9.185	9.148
Kaudimengab. Zuzkid. Aldak.	80	(124)	Kudeak. Beste sarrera batzuk	1.057	1.881
USTIAKETA MOZKINAK	**2.371**	**4.271**			
Finantza gastuak.....	22	204	Sarrera finantzarioak	217	169
FINANTZA EMAITZA P0SITIBOAK	**195**	-	**EMAITZA FINANTZARIO NEG.**	-	**35**
			EKIT. ITXIEN EMAITZA NEGATIBOAK	**52**	**179**
			APARTEKO EMAITZA NEGATIBOAK	-	**129**
EKITALDIKO MOZKINAK	**2.514**	**3.928**			

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK

2013-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA			Euroak milakotan
AITORTUTAKO ESKUBIDEAK	ERANSKINA	EUSKARA	KIROLAK
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.2	39	646
4. Transferentzia arruntak	A.3	517	331
5. Ondare sarrerak		-	17
8. Finantza aktiboak		35	13
SARRERAK GUZTIRA		**591**	**1.007**

			Euroak milakotan
OBLIGAZIO ONARTUAK	ERANSKINA	EUSKARA	KIROLAK
1. Langileria-gastuak	A.4	475	157
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. Erosketak	A.5	13	808
4. Transferentzia arruntak		44	27
8. Finantza aktiboak		35	13
GASTUAK GUZTIRA		**567**	**1.005**
SARRERAK – GASTUAK		**24**	**2**

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA	Euroak milakotan	
	EUSKARA	KIROLAK
ZORDUNAK		
Hasierako zorra	40	101
Kobrantzak	(40)	(101)
Azken zorra	-	-
HARTZEKODUNAK		
Hasierako zorra	27	71
Ordainketak	(27)	(71)
Azken zorra	-	-

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan	
	EUSKARA	KIROLAK
Kitatutako eskubideak	591	1.007
Aitortutako obligazioak	(567)	(1.005)
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	**24**	**2**
AURREKO EKITALDIETAKO ERAGIKETEN EMAITZA	-	-
EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA	**24**	**2**
Finantzaketa desbideratzeak	-	-
Diruzaintza gaindikinarekin finantzatutako gastuak	-	-
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	**24**	**2**

DIRUZAINTZA GELDIKINA	Euroak milakotan	
	EUSKARA	KIROLAK
Diruzaintza geldikina (1/1/13)	50	47
Aurrekontuaren emaitza	24	2
Kaudimengab. Zuzkiduraren hornid. Bariazioa	-	-
DIRUZAINTZA GELDIKINA 2013.12.31-N	**74**	**49**
Diruzaintza	136	60
Aurrekontuko zordunak	5	100
Aurrekontuz kanpoko zordunak	-	-
Aurrekontuzko hartzekodunak	(15)	(76)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(52)	(35)
Kaudimengabezietarako zuzkidura	-	-
DIRUZAINTZA GELDIKINA (2013/12/31)	**74**	**49**
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina	-	-
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA 2013/12/31-N	**74**	**49**

EGOERAREN BALANTZEA 2013-KO ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan	
	EUSKARA	KIROLAK
IBILGETUA	**269**	**5.592**
Ibilgetu materiala	269	5.592
ZORDUNAK	**5**	**100**
Aurrekontuko zordunak	5	100
FINANTZA-KONTUAK	**136**	**60**
Diruzaintza	136	60
AKTIBOA	**410**	**5.752**
FUNTS PROPIOAK	**343**	**5.641**
Ondarea	25	286
Atxikipen bidean dagoen ondarea	371	7.202
Aurreko ekitaldietako emaitzak	(54)	(1.685)
Galerak eta Irabaziak	1	(162)
HARTZEKOD. EPE LABURRERA	**67**	**111**
Aurrekontuzko hartzekodunak	15	76
Bestel. Hartzek. Ez aurrekontuzkoak	-	16
Erakunde Publiko hartzekodunak	29	11
Bermeak eta gordailuak e/lab.	23	8
PASIBOA	**410**	**5.752**

2013-KO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK		Euroak milakotan
	EUSKARA	KIROLAK
Langileria-gastuak	476	158
Kanpoko zerbitzuak	12	820
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak	44	-
Amortizaziorako zuzkidura	14	179
Beste ekitaldi batzuetako gastu eta galerak	9	-
GASTUAK	**555**	**1.157**
Negozio zifraren zenbateko garbia	18	644
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak	517	331
Kudeak. beste sarrera batzuk	21	20
SARRERAK	**556**	**995**
Emaitza: (Galera)/Mozkina	**1**	**(162)**

V.3 AZPEITIA LANTZEN, SA SOZIETATE PUBLIKOA

EGOERAREN BALANTZEA 2012 ETA 2013-KO ABENDUAREN 31-N							Euroak milakotan
	ERANSKINA	13/12/31	12/12/31		ERANSKINA	13/12/31	12/12/31
AKTIBO EZ ARRUNTA		**2.207**	**2.244**	**ONDARE GARBIA**		**3.477**	**3.449**
Ibilgetuko inbertsioak	A.14	2.174	2.211	Kapitala		1.393	1.393
Finantza inbertsioak e/luz.		33	33	Erretserbak		1.755	1.750
				Ekitaldiaren emaitza		51	5
				Diru-lag., dohaintz. eta legat.	A.14	278	301
AKTIBO ARRUNTA		**3.803**	**3.812**	**PASIBO EZ ARRUNTA**		**2.279**	**2.389**
Izakinak	A.14	3.178	3.311	Kreditu entitateekiko e/luz. zorrak	A.14	1.233	1.380
Merkatal hartzekodunak		70	21	E/luzeko beste zor batzuk	A.14	1.046	1.009
Finantza inbertsioak e/lab.		-	423				
Eskud. & bst. aktibo likidoak.		555	57	**PASIBO ARRUNTA**		**254**	**218**
				Kreditu entitateekiko e/lab. zorrak	A.14	72	-
				Fidantzak epe lab.		19	12
				Hornitzaileak		9	8
				Bestelako hartzek.		154	198
AKTIBOA GUZTIRA		**6.010**	**6.056**	**ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA**		**6.010**	**6.056**

2012 ETA 2013-KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUA — Euroak milakotan

	ERANSKINA	2013	2012
Negozio zifratik zenbateko garbia		231	353
Izakinen bariazioa	A.14	(133)	55
Hornidurak		(8)	(244)
Bestelako ustiaketa sarrerak		160	45
Langileria-gastuak	A.14	(113)	(105)
Bestelako ustiaketa gastuak		(49)	(61)
Ibilgetuaren amortizazioa	A.14	(37)	(37)
Diru-laguntzak emaitzetara egoztea	A.14	23	35
USTIAKETAREN EMAITZA		**74**	**41**
Sarrera finantzarioak		5	5
Finantza gastuak	A.14	(28)	(41)
EMAITZA FINANTZARIOA		**(23)**	**(36)**
EKITALDIAREN EMAITZA		**51**	**5**

ONDARE GARBIAN ALDAKETEN EGOERA

AITORTUTAKO GASTU ETA SARREREN EGOERA — Euroak milakotan

	2013	2012
Galera eta irabazien kontuaren emaitza	**51**	**5**
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak	**-**	**14**
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	-	14
Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira	**(23)**	**(39)**
Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	(23)	(39)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	**28**	**(20)**

B) ONDARE GARBIAN ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA — Euroak milakotan

	KAPITALA ETA ERRETSERBAK	AURREKO EKIT.EMAIT.	EKITALD. EMAITZA	DIRU-LAG.	GUZTIRA
Saldoa 2012ko urtarrilaren 1ean	**2.528**	**(172)**	**787**	**326**	**3.469**
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	5	(25)	(20)
Emaitzen banaketa	615	172	(787)	-	-
Saldoa 2012ko abenduaren 31n	**3.143**	**-**	**5**	**301**	**3.449**
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	51	(23)	28
Emaitzen banaketa	5	-	(5)	-	-
Saldoa 2013ko abenduaren 31n;	**3.148**	**-**	**51**	**278**	**3.477**

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOAK

II. IRITZIA

II.1. UDALA ETA TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOAK

II.1.1. LEGERIA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

PERTSONALA (ikus A4)

Lehena.- Kontuen Auzitegiaren Pertsonalari buruzko (ikus A.4) iritziari buruzko alegazioa, hain zuzen ere, Udalak eta Euskara Patronatuak ez zutela 2013ko abenduaren 31n lanpostu-zerrenda eguneratu bat, azken eguneratzea 2005eko otsailaren 3an udalaren osoko bilkurak onartutakoa zela kontuan hartuta.

(1) Kontu horri dagokionez, esan behar da, pertsonal-arloan, Udaleko Osoko Bilkurak Azpeitiko udaleko, Euskara Patronatuko eta Udal Kirol Patronatuko lanpostu-zerrenda onartzea erabaki zuela 2014ko abenduaren 2an egindako bileran. Lanpostu-zerrenda horretan daude xehatuta lanpostu-mailako osagarria eta osagarri espezifikoaren zenbatekoak, Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 15. artikuluak xedatzen duen bezala.

1. Dokumentu gisa daude jasota Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 9. eta 15. zenbakietan 2015eko urtarrilaren 15ean eta 16an argitaratutako iragarkiak).

(2) Lanpostu-zerrenda hori maiatzaren 20ko 8/2010 ELDtik hasi, abenduaren 30eko 20/2011 ELDrekin jarraitu eta 2015eko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legera arte homogeneotasunari dagokionez pertsonalerako kredituak handitzea (Aurrekontuko I. Kapitulua) eragingo lukeen aldaketa oro debekatu duen arau-ditestuinguruaren arabera onartu da, aurreko ekitaldirako baimendutakoarekiko eta salbuespen bereziak alde batera utzita, portzentajezko igoera kontuan hartu gabe.

(3) Giza Baliabideen kudeaketa hobetzera eta egoera hau zuzentzera zuzendutako udal-ahaleginak 2009an hasi ziren. 2009ko urtarrilaren 15eko Alkatetza Dekretuaren bitartez (2. dokumentua), aholkularitza-enpresa bat kontratatzea erabaki zen lanpostuak balioesteko eta organigrama bat egiteko. Eta enpresa haren azterketaren ondorioz, organigrama eta lanpostu bakoitzaren eginkizunen katalogoa egin ziren, langileak antolatzeko lan-oinarri eta -tresna gisa erabiltzen dena.

Horrenbestez, EPOEko 74.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Azpeitiko udala, beste udal batzuk bezala, antolaketa-atomizazioan murgilduta, lanpostu-zerrendaren antzeko beste antolaketa-tresna batzuk erabili ditu giza baliabideen antolamendurako.

Bestalde, AGko Administrazioarekiko Auzien Hirugarren Salako 7. Sekzioak emandako 2014ko otsailaren 5eko epaiak administrazio-egintzaren izaera juridikoa ematen die lanpostu-zerrendei, eta ez xedapen orokorrarena. Magistratuek adierazi dute “ez dela egintza antolatzailea, egintza antolatua baizik, Administrazioari bere burua antolatzeko balio diona bere egiturako elementu bat antolatuz, hain zuzen ere bertan txertatutako langileak”.

Interpretazio horren arabera, administrazio-egintzatzat jotzen denez onartzen denetik ditu ondorioak, eta argitaratzea ez da eraginkortasun-baldintza, baina argitaratzea eskatzen da interesdunek ezagutu dezaten.

(4) 2009-2010eko lanpostuen balorazio-prozesuan, giza baliabideen erabilera egokirako egitura organikoan aldaketak egitea behar zela ikusi zen aurkitutako premia jakin batzuei soluzioa emateko, batez ere batza batzuen ondorioz (erretiroak), langileen egoera administratiboen ondorioz eta pertsonal-arloko premien ondorioz, hain zuzen ere, intentsitate handiagoa hartzen joan diren eskumen-arloetan.

(5) Gobernu-organoek egin duten pertsonal-politikaren ildoak, ezinbestean eta indarreko legeria betez, pertsonal-premia urgenteak eta atzeraezinak aldi batez estaltzen zentratu dira, gai horren inguruko estatuko erregulazioa zehatza izan delako legegintzaldi honetan.

(6) Udal honen nahia da giza baliabideen arrazionalizazio-programa edo -plan batez hornitzea, Toki Administrazio honen premia eta zehaztasunetara egokitzen dena eta egungo araudiak gaur egun eskaintzen dituen zerbitzu publikoak estaltzen dituena, lege-araudiak egoera horri aurre egiteko aukera ematen duen heinean, bien bitartean ez delako posible norabide horretako jarduketarik. Hala, bitarteko izendapenen eta aldi baterako kontratuen iraupenari dagokienez, esan behar da ezinezkoa dela egoera hori arautzea, kontuan hartuta 2011tik gaur egun arte toki-eremuan nork bere burua antolatzeko ahalmena erabat galarazten duten lege-mugapenak.

2014ean Giza Baliabideen kudeaketa hobetzera zuzendutako urratsak ematen jarraitu dela, jakineko premiak zehaztea eta lehendik dauden baliabideak berrantolatzea eragingo dutenak giza baliabideak arrazionalizatzeko eta egitura organikoa zehazteko planaren bitartez. Halaber, lehen aipatu dugun lanpostu-zerrenda onartu da.

Bigarrena.- Bidegorri-proiektuko 2. Faseko obra-kontratuari buruz Kontuen Auzitegiak emandako iritziaren gaineko alegazioa, Kontratazioari buruzkoa (ikus A.12).

Auzitegiak uste du bidegorri-proiektuko 2. Faseko obra-kontratuan trazatua aldatzea ezin dela izapidetu kontratu-aldaketa gisa hasierako xedea zabaltzea delako.

(1) Udala ez dator bat iritzi horrekin, eta uste du administrazio-kontratazioaren irizpideak zorrotz bete direla eta zuzen eta legez izapidetu dela. Horregatik, honako hau alegatzen dugu:

a) Azpeitiko udalak 2012ko urriaren 22ko Ebazpen bidez esleitu zuela udal igerilekutik udal kiroldegira bitarteko bidegorria egiteko obra.

b) Esleipendunak aurkeztutako eskaintzaren araberako esleipen-prezioa 241.830,00 eurokoa (BEZ barne) izan zen eta 80.003,83 eurotan (BEZ barne) balioetsitako hobekuntzak, hau da, kontratazioaren esleitutako eskaintza ekonomikoa 321.834 eurokoa zen.

c) Kontratuaren egikaritzea obrako bost ziurtagiritan gauzatuko da.

d) Lehen lau ziurtagiriek 179.615, 37 euroko kostua izango dute (alegazioen 5., 6., 7. eta 8. dokumentuen bloke gisa esleitzen dira lehen lau ziurtagiriak, onarpen-dekretuekin, fakturekin eta partidaka xehatutako ziurtagirien laburpenarekin batera).

e) Lau ziurtapen horiei dagokien egikaritzearen ondoren (esleitutako obraren eskaintza 321.834 eurokoa zen, hobekuntzak barne, lehen lau ziurtagiri horietan egikaritu ez zirenak) 142.218,46 euro zeuden egikaritu gabe.

(2) Eta puntu horretan bihurtzen da ezinezko esleitutako obrarekin jarraitzea. Proiektua ezin da gauzatu Gipuzkoako Foru Aldundiak bidegorria osatzeko aukera emango zukeen biribilgunea ez eraikitzea erabaki zuelako.

(3) Gure iritziz, ezinbestekoa da adieraztea bidegorriaren trazatua ez zegoela ez udalaren eta ez esleipendunaren borondatearen baitan. Ezinezkoa zen bidegorri osoa egikaritzea hasieran esleitutako trazatuan kausa ez-egozgarriengatik eta aurreikusi ezin zirenengatik eta, ondorioz, ezinbestekoa zen beste trazatu bat prestatzea.

(4) Udalaren iritziz, bidegorriaren trazatua aldatu bada ere, ez da egon esleitutako kontratuaren funtsezko aldaketarik. Trazatu nagusia eginda egoteaz gain, lau ziurtagiri egikaritu ziren 179.615,37 euroko kostuarekin; eta jatorrizko trazatuari lotutako beste trazatu batekin bidegorriaren azken zatia egikaritzeaz ari gara, bidegorriaren trazatu globalarekiko aldaketa txiki bat baino eragiten ez duenaz.

(5) Toki-administrazio honek, ius variandi-an oinarrituta, esleitutako kontratua egikaritzean planteatu diren gorabehera berrietara egokitu zuen, interes publikoa babesteko. Udalaren iritziz ez zen beharrezkoa kontratazio-espediente berri bati hasiera ematea, ez delako egon funtsezko aldaketarik hasieran kontratatutako zerbitzuen prestazioan eta ez kontratuaren prezioan.

(5.1.) Aldaketa horri aurre egiteko aukera bat dator, kontratuan funtsezko aldaketarik ez izatearekin batera, administrazio-kontratuko hamaikagarren klausulan xedatutako interes orokorrarekin (Administrazio-kontratuko hamaikagarren klausulak honako hau dio hitzez hitz: “Administrazioak kontratua alda dezake, interes publikoko arrazoiengatik, ezusteko kausei aurre egiteko, eta kontratistak ez du izango kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko testu bategineko 223.e) artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe. Kontratuko aldaketek bertan jasota ez dauden obra-unitate berriak sartzea eragiten badu, aldaketa jorien prezioak Kontratazio Organoak finkatuko ditu eta, kontratistak onartzen ez baditu, Kontratazio Organoak beste enpresari batekin kontratatu ahal izango ditu finkatutako prezio beraietan edo, bestela, zuzenean egikaritu”.) (administrazio-kontratuaren administrazio-baldintzen agirien kopia erantsita doa alegazioen 9. Dokumentu gisa). Klausulak jasotzen zuen gorabehera hori gerta zitekeela kontratazio-espediente berri bat izapidetu beharrik gabe. Administrazio-kontratuak berak jasotzen zuen aldaketa horri aurre egiteko aukera administrazio-kontratua desegin gabe. Eta trazatuaren aldaketa hori sartzeak ez du inolaz ere eragin esleitutako eta udal-administrazioaren eta esleipendunaren artean hitzartutako kontratuan jasotako hasierako gastuaren hazkunderik, ezta administrazio-kontratuan hitzartutako prezioetan ere. Hori guztia bat dator TRLCSPko 106. Artikuluarekin, honela dioenarekin: ”Sektore publikoko kontratuak aldatu egin daitezke, baldin eta agirietan edo lizitazio-iragarkian berariaz adierazi bada aukera hori eta argi, zehaztasunez eta zalantzarik gabe xehatu badira aukera hori baliatzeko baldintzak, eta baita gehienez eragin diezaieketen kontratuaren prezioaren ehuneko berariaz adierazita

adostu daitezkeen aldaketen norainokoa eta mugak, eta horretarako jarraitu beharreko prozedura. Xede horietarako, kontratua aldatu daitekeen kasuak zehaztasun osoz definitu beharko dira objektibotasunez egiaztatu daitekeen aldiberekotasuna duten gorabeherak aipatuta, eta balizko aldaketaren baldintzak behar adinako xehetasunarekin zehaztu beharko dira lizitatzaileei balorazioa egiteko aukera emateko euren eskaintza egin ahal izan dezaten eta kontuan har ditzaten lizitatzaileen gaitasun-baldintzak eskatzeari eta eskaintzak balioesteari dagokienez".

Udalak aukera hori aurreikusi zuen eta, ondorioz, egindako aldaketa legezkoa zen espediente berri bat izapidetu gabe.

(5.2.) Nolanahi ere, kontratu-aurreikuspena alde batera utzita eta udalerri honentzako okerrena izan litekeen interpretazio juridikoaren aurrean jarriko bagina ere, hau da, administrazio-baldintzen orriek ez zutela aurreikusi egindako aldaketa egiteko aukera, aldaketa hori egiteko legezko aukera dago TRLCSPko 107. Artikuluan oinarrituta.

107. artikuluko lehen atalean aurreikusitako hipotesien arabera, Administrazioak esleitutako kontratuetan aldaketak egiteko legezko aukera du, baldin eta obra egikaritzea ezinezkoa bada. Kasu horretan, aurreikusi ezinezko gertakari batek obra egikaritu ezina eragin zuen, eta ezinezkoa egin zen prestazioa hasieran definitutako baldintzetan egitea. Hori guztia primeran txerta daiteke TRLCSPko 107. artikuluko lehen atalean aurreikusitako arrazoietan.

Hala, udal-jarduketa lege-estaldura horren bitartez babestuta egongo litzateke. Hala ere, lehen aipaturiko 107. artikuluaren literaltasunaren arabera, Administrazio honek lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak ez aldatzeko legezko aurreikuspena bete behar zuen, eta beharrezko egiten duen kausa objektiboari erantzuteko ezinbesteko aldaketak sartzera mugatu behar zuen. (TRLCSPko 107.2 art.). 107. artikulu horretako hirugarren atalak zehaztu eta adierazten du kontratua lizitatu eta esleitzeko baldintza bereziak aldatzen direla honako kasu hauetan:

"a.- Aldaketak goitik behera aldatzen dituenean hasieran kontratatutako prestazioaren funtzioa eta funtsezko ezaugarriak.

b.- Aldaketak kontratatutako prestazioaren eta prezioaren arteko erlazioa aldatzen duenean, erlazio hori esleipen-baldintzek definitu zuten bezala."

Horregatik, Azpeitiko udalak lizitazioaren funtsezko baldintzen aldaketa-kasu bakar batean ez egoteko legez xedatutako baldintza horiek bete zituen ala ez galdetu behar dugu.

Udalak ez zituen aldatu ez obraren funtzioa eta ez bere ezaugarri nagusiak. Xedea bidegorri bat egitea zen eta, trazatu bat egikaritzeko ezintasunaren aurrean, beste trazatu bat prestatu zuen, hasieran aurreikusitako bidegorri-proiektuarekin lotutakoa.

Kontratatutako prestazioaren eta prezioaren artean ere ez dago aldaketarik. Bidegorria 321.834 eurotan esleitu zen (hobekuntzak barne), eta trazatua aldatuta, azken ziurtagirian jasota dagoen bezala (alegazioetako 10. Dokumentu gisa erantsita doa, ziurtagirien azken kopia, bosgarrena, onarpen-dekretuekin, fakturekin eta partiden araberako ziurtagirien laburpenarekin batera) 62.214,61 euroko zenbatekoarekin. Hau da, guztiz ados esleitutako prezioari dagokionez eta aldaketarik gabe esleipendunak eskainitako prezioei dagokienez.

Zati horri aplikatu zaio egikaritu gabeko gainerakoaren 62.214,6 euroko kostua 80.003,83 euroko hobekuntzak, hau da, 142.218,46 euro guztira.[1]

(6) Udalak esleipendunari esleitutako kontratuaren aldaketa 2013ko otsailaren 7ko ebazpenean izapidetu zuen, esleitutako kontratuan egikaritu gabe zegoen 62.214,63 euroko zenbatekoagatik, eta baita 80.003,83 euroko hobekuntzak ere, hau da, 142.218,46 euro guztira (alegazioetako 11. Dokumentu gisa erantsi da, 2013ko otsailaren 7ko ebazpenaren).

(7) Gainera, udal-jarduketa bat dator interes publikoaren defentsarekin, izan ere, beste edozein interpretaziok, esaterako, Kontuen Auzitegiak egiten duenak, galera handiak eragingo lizkioke udaleko diru-kutxari. Kontratazio-espedientearen aldaketak udalaren betebeharrak ez betetzeagatiko kontratua desegiteko espedientea saihestu du eta, horrekin, kontratistari eragindako kalte eta eta galeren ordainketaren ondorioz sor litezkeen ondorio ekonomiko negatiboak (TRLCSPko 225.2 artikulua).

(8) Horregatik guztiagatik, trazatuaren aldaketak ez du eragiten, gure iritziz, administrazio-espediente berri bat izapidetzeko premiarik eta administrazio-kontratazioari buruzko jarraibide guztiak bete dira.

Hirugarrena.- Garmendipeko futbol-zelaiaren anexoa birmoldatzeko, soropil artifiziala instalatzea barne, kontratuari buruzko Kontuen Auzitegiaren iritziari buruzko alegazioa. Birmoldaketa bereizita kontratatu du udalak 2013ko uztailaren 29an eta urriaren 29an, publizitaterik gabe negoziatutako bi prozeduraren bitartez, 168.417 eurokoa eta 136.137 eurokoa, hurrenez hurren (6. eta 7. espedienteak) TRLCSPko 86. artikulua betez. Eta esleitutako lehen kontratuaren likidazioa 245.763 euroko zenbatekoan, % 46ko hazkundearekin (Ikus A.12).

Auzitegiak uste du bi espedienteak bereizita izapidetzeak, prestazioen balio metatuaren arabera, prozedura- eta publizitate-arauak ez betetzea eragin duela. Eta lehen esleipenak agirietan aurreikusita ez zegoen zenbatekoaren hazkundea eta lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzea eragin duela.

(1) Udala ez dator bat iritzi horrekin, eta uste du administrazio-kontratazioaren irizpideak zorrotz bete direla eta zuzen eta legez izapidetu dela. Horregatik, honako hau alegatzen dugu:

a) Azpeitiko udalak 2013ko uztailaren 4ko Alkatetza-ebazpenaren bitartez eman zion hasiera kontratazio-espedienteari (12. Dokumentu gisa, 2013ko uztailaren 4ko ebazpenaren kopia, eta 13. Dokumentu gisa, obrak esleitzeko proposamen-txostenaren kopia erantsi dira). Kontratazio-espediente harekin futbol-zelaiaren birmoldaketari dagokion obra baino ez zen egin nahi. Une hartan ez zuen beste obrarik egiteko asmorik aipaturiko futbol-zelaian.

---

[1] Kontratuaren xedea ez da bidegorriko zeinahi zati egitea, baizik eta lehiatutako egikaritza proiektuan zehaztutakoa, udal igerilekuak kiroldegiarekin lotzen dituena hain zuzen ere. Bestetara, esan behar da esleipendunaren eskaintza, 2012ko irailaren 27koa, 161.826 eurorena zela, gehi 80.003 euroren balioa zuten hobekuntzak; horrek 241.830 euroren lizitazio prezioa berdintzen zuen.

b) Obra egiteko arrazoia udalerrian lehendik zeuden bi futbol-zelaien ondoan zegoen lursail bat futbolean aritzeko moduan uztea zen. Lursaila erabilgaitza zen lehen eta aurreikusitako birmoldaketarekin kirola egiteko balioko luke. Ondoren beste obrarik egin gabe. Beraz, lursail bat kirola egiteko moduan uztea zen asmoa.

c) 168.417 euroko zenbatekoan (BEZ barne) esleitu zen obra, 56.241,20 euroko hobekuntzekin (BEZ barne). Esleipenaren kostu ekonomikoa, egindako esleipenaren arabera, 224.658,56 eurokoa zen (alegazioetako 12. Dokumentu gisa erantsi da 2013ko uztailaren 4ko ebazpena, eskaintza ekonomikoa 168.417,36 eurokoa dela eta hobekuntzen zenbatekoa 56.241,20 eurokoa dela adierazten duena, biak BEZ barne).

d) Espediente hori izapidetzerakoan administrazio-kontratazioaren printzipioek eskatzen dituzten baldintza guztiak bete ziren.

e) Obraren likidazioa, dena den, 245.763 eurokoa izan zen eta, ondorioz, ez du esleipenaren % 10 baino aldaketa handiagoa. Izan ere, esleipenaren eskaintza ekonomikoa 224.658,56 eurokoa izan zen. Edozein kasutan, aldaketak esleipen-prezioaren % 9,394ko hazkundea eragin du.

2) Lursaila kirola egiteko egokitzeko birmoldatzeari dagokion kontratazio-espedientearen aldaketa horrek ez du lege-hausterik eragiten eta horretarako baimendutako lege-esparruen barruan dago. Horregatik, ez gatoz bat kontratazio-espedientean % 46ko hazkundea egon dela esaten denean, kontuan hartu behar baita esleipendunaren eskaintza 224.658, 56 eurokoa zela (hobekuntzak barne)[2].

(3) Espediente horretan izapidetutako udal-obrak, lehen adierazi den bezala, lursaila birmoldatzea eta gero beste obrarik ez egitea aurreikusten zuen, behin obra bukatutakoan udalerriko ikastetxeetako ikasleek eta kirol-klubetako bazkideek futbol-zelai moduan erabiltzeko aukera izan zezaten. Eta hala jakinarazi zitzaien herriko kirol-klubei.

Udalak une hartan ezin zuen aurreikusi etorkizunean beste obra bat egiteko aukerarik, ez zelako hori toki-erakundearen asmoa eta ez zuelako horretarako diru-laguntzarik. Horregatik, zuzentasun osoz esleitu zen obra, izaera integralekoa zena eta bukatutakoan udal-xedeetarako balio zuena.

Azpeitiak bazuen belar naturaleko futbol-zelai bat eta soropil artifizialeko beste bat, beraz, ez zuen belarrezko beste futbol-zelairik behar. Azpeitiaren tamainako edozein udalerrirekin enpirikoki ikus daitekeen errealitatea da hori, bi futbol-zelai kopuru egokia dela udalerrirako. Ez zen udalerriaren asmoa hirugarren futbol-zelaia belarrezkoa izatea. Eta esleitutako obrak zentzu guztia zuen soropilik gabe, lurrezko futbol-zelaiak bazuelako bere funtzionaltasuna kirol-esparruan. Eta guztiaz baliagarria zen udalak obrarako finkatu zuen zereginerako, belar natural eta artifizialeko futbol-zelaien ondoan aprobetxatu gabe zegoen lursail bat erabiltzeko eskaera sozialarekin bat etorriz.

---

[2] Obraren lizitazio aurrekontua 168.417 eurorena izan zen eta esleipenak ezin du hori gainditu, alegazioan egin asmo den legez.

(4) Baina birmoldaketaren lizitazioak eta obren hasierak tokiko eragileak mugiarazi zituen futbol-zelaia belar artifizialaz hornitzera, obra bakarra izatekotan zentzurik ez zuena (14. eta 15. Dokumentu gisa Lagun Onak Futbol Taldeko presidentearen eta Ikasberri Kirol Elkarteko presidentearen idatziak erantsi ditugu, birmoldatutako futbol-zelaiaren gainean soropila instalatzeko eskatuz, administrazio-espedientean jasota dagoen bezala).

(5) Udalerriko kirol-klubak eta udala bera Futbol Errege Federazioarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarri ziren soropil artifiziala hornitu eta instalatzeko behar ziren diru-laguntzak lortzeko helburuarekin (16. Dokumentu gisa Futbol Errege Federazioaren, udalaren eta aipaturiko futbol-taldeen artean egindako 150.000 euroko hitzarmenaren kopia eta 17. Dokumentu gisa 121.419 euroko diru-laguntza ematen duen Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Sailaren 2013ko azaroaren 8ko ebazpena erantsi dira).

(6) Diru-laguntza horiek lortzeko aukerak beste obra bat egitera eraman zuen udala, hain zuzen ere, belar artifiziala hornitzera eta futbol-zelaian instalatzera. Obra hori, hasieran, ez zegoen aurreikusita eta bere kontratazio-espedientearen arabera izapidetu zen.

(7) Belar artifiziala hornitzeko eta instalatzeko kontratazio-espedientea 2013ko urriaren 15ean esleitu zen (erantsita daude esleipen-txostena, esleipen-ebazpena eta administrazio-kontratua 18., 19. eta 20. Dokumentu gisa) 136.137 euroko zenbatekoarekin.

(8) Lehen ere adierazi den bezala, ez zen udalaren asmoa proiektu osoari heltzea, eta soropil artifizialaren instalazioa ezin zen aurreikusi eta ez zen zuhurra aurreikustea, udalak horretarako diru-laguntzarik lortuko zuela aurreikustea aurreikusi ezin zen bezala eta zuhurra ez zen bezala.[3]

(8.1.) Administrazio-jarduketa oro antolakuntza-efizientzia eta -arrazionaltasun printzipioek bultzatu behar dute eta, horregatik, nahi izan balitz ere, ezinezkoa zen futbol-zelaiaren birmoldaketa eta soropil artifizialaren hornidura eta instalazioa bilduko zituen proiektua esleitzea.

Eta hori, arazoa alderantziz planteatzen badugu nabaritzen da, irudika ditzakegu proiektu global bat esleitzearen ondorioak udalak soropil artifizialaren horniduraren eta instalazioaren ez berririk eta asmorik ez zuenean eta horretarako diru-laguntzarik lortuta ez zuenean.

Diru-laguntzarik lortu ez balitz, ez zen soropil artifizialik jarriko, beraz, udalak ezin zuen obra globala aurreikusi birmoldaketaren kontratazio-espedientea esleitu zuenean. Diru-laguntzak lortzeko bermea izan zuenean soilik heldu zion soropil artifizialaren hornidurari eta instalazioari, zegokion administrazio-espedientea izapidetuz.

---

[3] Zelaia birmoldatzea eta belar artifiziala jartzea aurreikusiak zeuden 2013ko ekitaldiko aurrekontuetan; baita, hori guztia diru-laguntza bidez finantzatzea ere. Horrezaz gain, zelaia birmoldatzeko espedientea onartu aurretik, 2013ko ekainaren 25ean, udal teknikariek lizitazioei publikotasuna emateko zegoen obligazioaz ohartarazi zuten, proiektuaren osotasunezko kopurua aintzat hartuta (belar artifiziala jartzea barne hartuta).

Kontuen Auzitegiaren iritzia, errespetu guztiz esanda, ez da errealitatera doitzen. Udalak ez zuen proiektua zatikatu. Kontratazio-espedienteak izapidetu zituen une bakoitzeko asmoaren arabera eta espediente bakoitzaren izaera osoarekin.

(8.2) Errealitate hori kontuan hartuko ez balitz eta beste interpretazio bat egingo balitz ere, udalak TRLCSPko 86.3 artikuluaren lege-babesa du, honako hau xedatzen duenarena: "obra batean txertatzera zuzendutako prestazio bereiziak bereiz kontrata daitezke, 6. Artikuluan xedatutako dagoen bezala, prestazio horiek bereiz egikaritzeko aukera ematen duen substantibotasun propioa dutenean, gaikuntza jakin bat duten enpresek egin behar dituztelako."[4]

Hortik ondoriozta daiteke substantibotasun propioa duten prestazioak, kasu honetan belar artifiziala instalatzea, modu independentean kontrata daitezkeela; baina gaikuntza jakin bat duten enpresek egiteko baldintza bete behar dute. Belar artifizialaren instalatzaileak behar duen gaikuntza espezifikoaz ari gara, noski, soropilaren kaudimen materialaren zehaztapenengatik (kautxua, kokoa…). Horregatik, kaudimen material, tekniko eta profesionalaren bermeak betetzen zituzten enpresei bidali zitzaizkien gonbidapenak (soropil artifiziala instalatzen diharduten eta zeregin horretan esperientzia egiaztatua duten hiru enpresa baino gehiagori, erantsi dugun 18. Dokumentuan ikus daitekeen bezala, hain zuzen ere, eskaintzaileen gaikuntza adierazten duen esleipen-txostenaren kopian).

Argi dago kaudimen material, tekniko eta profesional hori ezin zitzaiola eskatu futbol-zelaia birmoldatzeko obra esleitu zitzaion kontratistari. Beraz, azaldu ditudan arrazoiak kontuan hartuta, ez da ondorioztatzen obra horien kontratua zatikatzeko asmorik, obrak izaera desberdineko jarduketak eta elkarren artean independenteak hartzen zituelako.

(9) Gure iritziz, obrako bi espedienteak, bai futbol-zelaia birmoldatzekoa eta bai soropila hornitu eta instalatzekoa, denbora-tarte txikiarekin egikaritu diren arren, horrek ez du esan nahi administrazio-espediente bakarrean izapidetu behar izan direnik. Bi obra bereizi dira, aipaturiko zirkunstantzien araberakoak, eta bien administrazio-kontratua behar bezala izapidetu da. Dena den, obrek substantibotasun propioa dute, bereiz egikaritzeko aukera ematen duena. Hainbat kontratuk xede osagarria izateak ez du esan nahi helburu bera dutenik eta, ondorioz, modu independentean lizita daitezke.

Eta futbol-zelaia birmoldatzeko kontratazio-espedientearen likidazioari dagokionez, % 9,39ko hazkundea eragin duela nabarmendu behar dugu (21.104,44 euro, 224.658,56 euroko esleipen-prezioaren gainean, hobekuntzak barne).

Bosgarrena. Auzitegiak uste du udalak eta Kirol Patronatuak, hurrenez hurren, 570.489 eta 126.412 euroko gastua egikaritu dutela 2013 ekitaldian, eta 5 zerbitzuren prestazioa esleitu

[4] Aipatutako aginduak halaxe jasotzen du: "aurreko paragrafoetan aurreikusitako kasuetan, multzo bakoitzean edo bereizitako zerbitzu ematean esleipenean baliatu behar diren prozedurazko eta publikotasunari buruzko arauak, osotasunean metatutako balioaren arabera erabakiko dira".

dutela zuzenean, kontratazio administratiboan indarrean dauden publizitate- eta lehia-printzipioak bete gabe utziz.

Ezinbestekoa da Auzitegiak aipatutako zerbitzu bakoitzean Azpeitiko udala hainbat urtez jasaten ari den egoerak argitzea eta justifikatzea.

(1) Azpeitiko udalaren eta Udal Kirol Patronatuaren Udal Eraikinak Garbitzeko Zerbitzuari dagokionez (185.000 euro) (126.000 euro): Udaleko Osoko Bilkurak 1998ko azaroaren 10ean egindako bileran jarri zuen martxan emakida kontratatzeko espedientea hainbat ikastetxeren eta udal-eraikinen garbiketa-zerbitzu integralaren eta haietatik hondakinak ateratzeko zerbitzuaren lehiaketa publikoaren bitartez (kontratazio-espedienteak udal-jabegoko honako eraikin hauen garbiketa hartzen zuen): a) Kirol-instalazioak: - Udal-igerilekua.- Polikiroldegia. b) Ikastetxeak eta eskolak: Institutua.- Euskalerria kaleko ikastola.- Urrestillako ikastola.- Oktogonoko ikastola.- Betherramitak.- Arte eta diseinu eskola.- Aspace.- Udal euskaltegia. c) Beste batzuk: Ingurugiro museoa.- Zezen-plaza.- Loiola 91.- Pilotalekuko sarrera.- Plaza Nagusia.). Baina prozedura izapidetu ondoren, eta espedientearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, Udaleko Osoko Bilkurak abian jarritako lehiaketa esleitu gabe uztea erabaki zuen 1998ko abenduaren 29an egindako bileran.

Erabaki hori hartuta, eta zerbitzu horretarako aplikatu beharreko lan-hitzarmena betez, 1999ko urtarrilaren 1ean udalak bere plantillan subrogatu zituen ordura arte enpresa esleipenduna osatzen zuten baina zuzendaritzan ez zeuden langileak. Jarduketa horretatik aurrera eta ondorengo ekitaldietan, udalak baliabide propioak erabili ditu esku artean dugun zerbitzurako. Hala eta guztiz ere, ekipamendu berriak eta udal-zerbitzuak handitzeko arrazoiak medio, 2001eko ekitalditik aurrera udalak zuzendutako garbiketa-lanak kanpoko zerbitzuekin osatuko direla erabaki zen; bere garaian unean uneko zerbitzuak izango zirela uste bazen ere, denborarekin finkatu egin dira.

Udalak hausnarketa bat egin du esku artean dugun zerbitzuari zuzenean eragiten dioten giza baliabideen arloan zenbait erabaki hartzeko. Kontu horri dagokionez esan behar da, ezinbesteko premiei aurre egiteko eta udal-eraikinen garbiketa-funtzioak betetzeko 2013ko ekitaldian udalak lan-poltsa bat onartu duen arren, 2015eko lehen hiruhilekoan izapidetzea aurreikusten den prozedura ireki baten bidez kontratazio-espediente bat onartzeko agiri teknikoak prestatzen ari direla gaur egun.

(2) Laguntza informatikoko zerbitzuari dagokionez (147.000 euro) eta 2015eko otsailaren 20an, prozedura irekiaren bitartez, esku artean dugun zerbitzua kontratatzeko espedientea onartzearen kalterik gabe (29. Dokumentu gisa erantsi da Ebazpena), honako hau argudiatu daiteke:

Lanpostu-zerrendak, beste batzuen artean, informatikari lanpostua jasotzen du, gaur egun hutsik dagoena. 1998ko urrira arte, ordea, lanpostu hori karrerako funtzionario batek betetzen zuen, Alkatetzaren 1998ko martxoaren 9ko izendapenaren bitartez kudeatzaile-lanpostua hartu zuenak. Kudeatzaile-lanpostua konfiantzazkotzat jotzen da eta aldi baterako izaerarekin dago jasota Azpeitiko udaleko Lanpostuen Zerrendan.

Egoera horretan oinarrituta, udalak laguntza informatikoko zerbitzua kontratatu zuen udalaren eta bere erakunde autonomoen unean uneko premiak osatzeko eta estaltzeko. Karrerako funtzionarioaren kudeatzaile-lanpostuaren aldi baterako egoera asko ez zela luzatuko uste zen, baina udal-antolakuntzan izandako gorabeherek eta Alkatetzaren ondorengo titularrek karguari eusteak laguntza informatikoko zerbitzuak luzatzea eragin zuen.

Toki-administrazioarentzako programa espezifikoen etengabeko garapenak, Gipuzkoako Foru Aldundiak burututa IZFEren bitartez, eta toki-erakunderako informatika-zerbitzuen eraginkortasuna bermatuko duen laguntza-mapa bat antolatzeko zailtasunak atzeratu gin dute espedientea izapidetzea. Hala ere, 2014ko ekitaldian baldintza administratibo eta teknikoen agiria egin du, eta zerbitzua kontratatzeko prozedurari hasiera eman dio.

(3) Udal-liburutegia Kudeatzeko Zerbitzuari dagokionez (130.000 euro), esan behar da dagokion espedientea administrazio-kontratazioa arautzen duten publizitate- eta lehia-printzipioen arabera izapidetu ondoren, 2015eko urtarrilaren 14ko Alkatetza Ebazpenaren bitartez esleitu dela zerbitzua (30. eta 31. Dokumentu gisa erantsi dira esleipen-ebazpena eta kontratua formalizatzeko iragarkia, 2015eko urtarrilaren 21eko 12 zk.-ko GAOn argitaratutakoa). Zentzu horretan, gaurko egunez egoera atipikoa erregularizatu da, Auzitegiak aipatutako gainerako kontratuen kasuan bezala, zerbitzuko lanpostuak betetzen dituzten funtzionarioen mugikortasunean eta zerbitzu-bukaeran oinarria dutenak.

(4) Parkeak eta lorategiak mantentzeko zerbitzuari dagokionez (109.000 euro) esan beharra dago zerbitzu hori udaleko lantaldearen eta lan-merkatuan sartzeko arazoak dituzten kolektibo sozialen artean banatu izan dela, azken horiek hainbat programaren bitartez kontratatuta. Hala ere, lan finagoetan eta espezializatuagoetan enpresa espezializatuetara jo da.

Aurreko urteetan hirigintza-politika aktiboa garatu da Azpeitiko udalerrian eta, horren ondorioz, urbanizazio eta berrurbanizazio berriak egikaritu dira, gero eta parke eta lorategi gehiago sortzea eragin dutenak, eta horiek mantentzeak jarduketa espezializatua eskatzen du.

Azaldutako guztia ikusita, ezinbesteko premiei aurre egiteko eta lorategi-funtzioak estaltzeko lan-poltsaren eta, bestalde, Azpeitiko udalerrian baratze-parkearen egikaritze espezializatua, gaur egun bukatuta dagoena, kontratatzeko espedientearen kalterik gabe (kontratua 2014ko uztailaren 8an formalizatu zen), gaur egun hiri-lorategi eta –parkeak mantentzeko kontratazio-espedientea onartzeko agiri teknikoak ari dira prestatzen, 2015eko lehen hiruhilekoan izapidetzea aurreikusten den prozedura irekiaren bitartez.

(5) Azaldutako horretatik ondoriozta daiteke udalak badakiela zenbait zerbitzu urteetako inertziaz eta hainbat legegintzaldi lehenagotik ari direla ematen zuzenean. Kasu bakoitzean adierazi den bezala, egoera erregularizatzeko orduan eta zerbitzu horiek lehia- eta printzipioen arabera lizitatzeko orduan izandako atzerapenaren arrazoia, neurri batean, Giza Baliabideen kudeaketa hobetzeko xedez hartu diren eta oraindik hartu behar diren erabakiak direla (giza baliabideak eta lehiaren zerbitzuen kudeaketa berrantolatzea).

ONDAREZKOA (ikus A.7)

Seigarrena.- Ondarearen atalean Auzitegiak ohartarazten du lokal bat eta erabilera-eskubide bat erosteko ordaindutako zenbatekoak justifikatzen dituen aurretiko peritu-txostenik ez dagoela eta, horrek, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduari buruzko ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuko 11. artikulua urratzen duela.

(1) Kontu horri dagokionez eta ondasun higiezin baten kostu bidezko eskuratze baten kasuan egonda, esan behar da prozedura aplikagarriari dagokionez, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduko 11. artikuluan xedatutakoa indargabetutzat jotzen dela. Hori guztia, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 4.1. p) artikuluak Toki Erakundeek ondasun higiezinak eskuratzeko kontratuak kontratu pribatutzat jotzen dituela kontuan hartuta, prestaketari eta esleipenari dagokienez zuzenbide pribatuko arauen arabera arautuko direnak.[5]

Beraz, modu osagarrian eta behar diren egokitzapenekin aplikatu beharko dira Herri Administrazioen Ondarearen Legeko 116. Artikulua eta hurrengoak, prozedura orokorra lehiaketa publikoa izango dela xedatzen dutenak, baldin eta gogobete beharreko premien berezitasunak, higiezinen merkatuaren baldintzak, ezusteko gertakarien ondoriozko urgentzia edo ondasunaren egokitasun berezia kontuan hartuta, eskuratzeak zuzena izan behar duela erabakitzen ez bada.

(2) Kasu horretan ondoriozta daiteke eskuratze zuzena posible den kasu guztiak ematen direla, batik bat, gogobete beharreko premiak, ondasunaren egokitasun berezia eta bere urgentzia kontuan hartuta.

- Gogobete beharreko premiak, oinezkoentzako galeria bat eraikita Foru Pasealekua berrurbanizatzeko proiektuak erantzuna ematen ziolako ordura arte errepidean sartu gabe ibilgaitza zen oinezkoentzako bidea zabaltzeko premia atzeraezinari. Berrurbanizazioaren aurretik, errepidearen eta espaloiaren estutasunak errepidea edo espaloia inbaditzera behartzen zituen, hurrenez hurren, oinezkoak eta ibilgailuak. Eta hori guztia udalerriko bide edo pasabide nagusietako batean, oinezkoen eta ibilgailuen igarotze handienetakoa duenean.
- Ondasunaren egokitasuna, jarduketa hori zelako aukera bideragarri bakarra udalerriko bide nagusi bateko segurtasun-puntu kritiko bati soluzioa emateko (2013ko irailean Plan Orokorra onartu zen arte Foru Ibilbideko eraikina antolamenduz kanpo zegoen eta eraistea balioesten ari ziren) eta, aldi berean, ingurunea hobetzen zuen, merkataritza-arloan suspertuta.

[5] TTEEOEren 11. artikulua ez du inongo legek, ez dekretuk indargabetu. Estatuko Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak, 2009ko urtarrilaren 29ko 25/2008 txostenean, artikulu hau aipatzen du, indarreko joaz.

- Bere urgentzia, udalerriko bide garrantzitsuena izan litekeenean, oinezkoen eta ibilgailuen joan-etorriaren puntu kritiko bati segurtasun-ikuspegitik soluzioa ematen zaiola kontuan hartuta.

Beraz, gure iritziz frogatuta geratzen da proiektu hori egikaritzeko premia urgente eta atzeraezina eta proiektua Foru Ibilbideko 7 zk-ko eraikinaren azpian egitekoa.

(3) Proiektu osoaren izaera globala kontuan hartuta, interes publikoarekin eta pilaturiko gainerako zirkunstantziekin bat datorrela, bereziki kokapenari eta urgentziari dagokionez, ezinbestekoa zen ukitutako pertsona ugariekin akordioak lortzea: lokalen jabeekin, auzotarren komunitatearekin eta merkataritza-jardueren titularrekin.

Adierazitako eragiketa soilik zen bideragarria. Udalak aztertu eta baztertu egin zuen, kostu ekonomiko handia zuelako, higiezin osoa erosi eta eraisteko aukera.

(4) Ukitutako alderdien arteko negoziazio-prozesu osoan zehar beti egon zen borondatea batik bat udalerriaren interes publikoa gogobeteko zuen akordio orekatua lortzeko.

(5) Ondasunak eta eskubideak eskuratzeko azken prezioa erabakitzeko orduan, txosten teknikoak hartu ziren kontuan, lege-irizpideen eta hirigintza-sailkapenaren araberako balioespen ekonomikoa egin zutenak. Zentzu horretan, lokala erosteko eta erabilera-eskubide lortzeko zenbatekoak jabeekin egindako itunetan eta horien estimazio ekonomikoan oinarrituta ordaindu ziren, eta hori ere osotasunean balioetsi behar da.

(6) Aipaturiko ondasunak eta eskubideak eskuratu aurretik ahoz egindako balorazioak berresteko xedez, udalaren mendeko teknikari fakultatiboek egindako txostenak erantsi dira, egindako balorazio ekonomikoa arrazoitzen dutenak eta lokala eskuratzeko eta azalera mugakide bat erabiltzeko baimena ordaintzeko egindako gastua justifikatzen dutenak. (32. eta 33. Dokumentu gisa erantsi dira udal arkitektoak eta Azpeitia Lantzen, S.A.-ko teknikariak egindako txostenak).

(7) Dena den, balorazio ekonomiko horrek eskuratzearen prezioa babesteko balio duen arren, ez da ahaztu behar kasu bakoitzean ordaindu beharreko prezioa edo ordaina negoziazioak eta akordioak lortzearen baitan dagoela hein handi batean. Jabeekin egindako negoziazioak konplexuak, gogorrak eta luzeak izan ziren eta, teknikarien balorazio ekonomikoez gain, era guztietako beste hainbat zirkunstantziak ere eragin zieten, eragiketari konplexutasun handia eman ziotenek. Esan beharra dago eragiketako lokaletako batek, azalera galtzeaz gain, kalte erantsia duela eta balio ekonomikoa galtzen duela bukaeran geratzen zaion formaren ondorioz (bihurritu egiten da), hain zuzen ere, igarotzea ahalbidetzeko eta eta aipaturiko erabilera-eskubidearen xede izateko.

(8) Beraz, aipaturiko ondasun eta eskubideen kostu bidezko eskuratzerako prozesuaren eboluzioa, hirigintzako informazio-batzordeetan egindako azterketa eta Udaleko Osoko Bilkurako kide guztien ahobatezko eta eragozpenik gabeko onespena kontuan hartuta, Azpeitiko udalak ondare-legeriak xedatutako baldintzak bete dituela ondorioztatu behar da. 34. Dokumentu gisa erantsi da 2013ko ekainaren 4ko osoko bilkuraren erabakia eta 35. Dokumentu gisa ondasunak eta eskubideak eskuratzeko gastua onartzen duen Alkatetza Dekretua.

Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1. UDALA ETA TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOAK

II.1.2. URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Kontuen Auzitegiak EAEko Auzitegi Nagusiak 2003ko maiatzaren 30ean xedatutako epaiaren berri eman du. Epaia haren bitartez Auzaraza hirigintza-eremuan eraikitako bi eraikinen, haien urbanizazioaren eta eraikuntza oinarrituta zegoen administrazio-egintzen legezkontrakotasuna deklaratu zen, eta udala premiatu zen hirigintza-legezkotasuna lehengoratzera eta erantzukizunak ondorioztatzera.

EAEko Auzitegi Nagusiaren 2009ko maiatzaren 30eko epaia betez, Auzarazako eraikinen legez kanpoko egoerari buruzko kontingentzia Kontu Orokorreko Memorian jasotzeko udalaren betebeharraren kalterik gabe, toki-erakundearentzako ondorio ekonomiko posibleei aurre egiteko estimazio ekonomikoa zehazteko ezintasunaz ohartarazi behar da, kontuan hartuta RCA 857/01-2 Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salatik izapidetzen ari dela.

Dena den, kontuan izan behar da 2013ko irailean onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokor berri bat dagoela eta horrek bere ondorioak dituela.

Bestalde, prozesu nagusiari aplikatu beharreko kostu guztiak ordaindu dira, eta ez-egikaritzearen ordainsariak eta, hala badagokio, kostuak geratu dira ordaintzeko.

2. Auzitegiak ohartarazten du udalak ez duela erregistratuta 2013ko abenduaren 31ko Egoera Balantzean kobratu beharreko zorra, 1,3 milioi eurokoa, Etxebeltz-Izarra eremuaren birpartzelazio-proiektuan sortutako hirigintza-aprobetxamenduari dagokiona, 2007ko martxoaren 19ko alkatetza-dekretuak behin betiko onartutakoa. Horri gehitzen zaio alderdiek izenpetutako hitzarmenetik ondorioztatzen dela zona antolatzeko eremuko kontzertazio-batzordeak egin beharreko hobekuntza gisa sailkatutako obra jakin batzuen % 50 finantzatzeko erabiliko dela zenbateko hori.

(1) Auzitegiak adierazitakoari gehitu behar zaio eremurako onartutako antolamenduarekiko konpromisoak, esku artean dugun hirigintza-aprobetxamenduari dagokion 1.250.105 euroko zenbatekoa barne, berariaz jasota daudela Etxebeltz-Izarra eremuaren birpartzelazio-proiektuan bertan, dokumentu publiko gisa une oro aitor daitekeen eta eraginkorra den balioa duena. Bestalde, Dokumentu hau Jabetza Erregistroan behar bezala erregistratuta dago, Interesatzen zaion edonoren ezagutzarako eta ondorioetarako.

(2) Toki-erakundeak eska dezakeen zorraren izaeraren kalterik gabe, gaur egun, urbanizazioa eta onartutako gainerako obra osagarriak guztiz bukatuta ez daudela eta, horregatik, oraindik likidatu gabeko zorra dela esan behar da.

2014ko uztailaren 23ko Alkatetza Dekretuaren bitartez (2014ko abuztuaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa) egin beharreko antolamenduaren urbanizazio-lanek eta hobekuntza-lanek osatzen duten Etapa Plana onartu da. Lan horiek bukatutakoan, udalak hirigintza-aprobetxamenduaren gainerako zenbatekoa likidatuko du

(36. Dokumentu gisa erantsi dira aipaturiko Etapa Plana, bere onespenari dagokion ebazpena eta onespen horren argitalpena).

